

**WINNEMUCCA, NEVADA**  
**EUSKAL MEZA, 2026 EKAINAK 14/JUNE 14, 2026**  
**URTEAREN ZEHAR IGANDEA XI/XI SUNDAY IN ORDINARY TIME (A)**  
**MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS**

**HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG**

<p style="text-align: center;"><b>Kristo gure Errege adora dezagun, Zeru-lurren jabe aitortu dezagun. (380)</b></p> <p>1. Fede bizi baten, denok ernai, Zureak gera gu, o Jesus bai! (bis) Ez da beste jaberik, ez dugu nahi.</p> <p>2. Jesusen izena gaur abestu: Bere aintza beti, bai zabaldu (bis) Erreinu denetan, gora Jesus!</p>	<p style="text-align: center;"><b>Christ our King, let us adore, The Lord of Heaven and Earth.</b></p> <p>1. In one faith all awake, We are yours, oh Jesus, we are! (bis) There is no other Lord, we do not want.</p> <p>2. Today we sing Jesus' Name: We sing his glory to all the world (bis) In all kingdoms, Hi Jesus.</p>
---	---

**HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES**

<p>† Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ⊙Amen.</p> <p><b>Agurra</b></p> <p>† Jaungoiko gure Aitaren, eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.</p> <p>⊙Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ⊙ Amen.</p> <p><b>Greeting</b></p> <p>† Grace to you and peace from God our Father and the Lord Jesus Christ.</p> <p>⊙And with your spirit.</p>
--	---

**DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE**

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitezen.</p> <p>†Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.</p> <p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>†Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.</p> <p>⊙ Kristo, erruki.</p> <p>†Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.</p> <p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltzua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.</p>	<p>† Brothers and sisters let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>†You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ <b>Lord, have mercy.</b></p> <p>†You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy.</p> <p>⊙ <b>Christ, have mercy.</b></p> <p>†You bring light to those in darkness: Lord, have mercy.</p> <p>⊙<b>Lord, have mercy.</b></p>
--	---

<p>☉ Amen.</p>	<p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life. ☉ Amen.</p>
----------------	--

**AINZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST**

<p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizonei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.</p>	<p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.</p>
---	--

**MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER**

<p>† Egin dezagun otoitz Jainko Jauna, zukan itxaro dutenen indarra, entzun bihotz onez gure otoitza; eta Zu gabe giza ahuleriak ezer egin ezin duenez gero, eman beti zure graziaren laguntza, zure aginduak beterik, zuretzat atsegingarri izan gaitezen gure gogoz eta ekintzetan. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ☉ Amen.</p>	<p>† Let us Pray O God, strength of those who hope in you, graciously hear our pleas, and, since without you mortal frailty can do nothing, grant us always the help of your grace, that in following your commands we may please you by our resolve and our deeds. Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, God, for ever and ever. ☉ Amen.</p>
---	---

**HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD  
LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING**

**Irteera liburua/ Ex 19:2-6a**

<p><b>Irteera liburutik</b></p> <p>2 Refidimdik abiatuak, Sinai basamortura heldu ziren, eta han ezarri zuten kanpalekua, mendiaren aurrez aurre. 3 Moises mendira igo zen Jainkoarengana. Jaunak menditik dei egin eta esan zion: «Mintza zakizkie Jakoberen ondorengoei,</p>	<p><b>From the Book of Exodus</b></p> <p>In those days, the Israelites came to the desert of Sinai and pitched camp. While Israel was encamped here in front of the mountain, Moses went up the mountain to God. Then the LORD called to him and said, “Thus shall you say to the house of Jacob; tell</p>
--	--

israeldarrei, eta adierazi hau: **4** Ikusi duzue zer egin diedan egiptoarrei, eta nola, arranoak bere kumeak hegaletan bezala hartuz, niregana ekarri zaituztedan. **5** Beraz, nire esana betetzen baduzue eta nire ituna gordetzen, zuek izango zaituztet herri guztien artean neure jabego berezia, nirea baita lur osoa; **6** apaiz-erreinu izango zaituztet, niri sagaraturiko herri.

□ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak zuri Jauna!

the Israelites: You have seen for yourselves how I treated the Egyptians and how I bore you up on eagle wings and brought you here to myself. Therefore, if you hearken to my voice and keep my covenant, you shall be my special possession, dearer to me than all other people, though all the earth is mine. You shall be to me a kingdom of priests, a holy nation.”

□ **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

### ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 100:1-2,3,5;

**R. Gu gera bere herri eta berak larraturiko artalde.**

Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari!  
Zerbitza ezazue pozik Jauna,  
joan oihu alaiz haren aurrera. **R.**

Aitortu Jauna Jainko dela.  
Berak eginak eta bereak gaitu,  
bere herri eta berak larraturiko artalde. **R.**

Bai, ona da Jauna,  
haren maitasuna betikoa,  
haren leialtasuna mendez mendekoa. **R.**

**R. We are his people, the sheep of his flock.**

Sing joyfully to the LORD, all you lands;  
serve the LORD with gladness;  
come before him with joyful song. **R.**

Know that the LORD is God;  
he made us, his we are;  
his people, the flock he tends. **R.**

The LORD is good:  
his kindness endures forever,  
and his faithfulness to all generations. **R.**

### BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

#### Erromatarrei egindako Eskutitza/Romans 5:6-11

Senideok: **6** Izan ere, oraindik bekatupean indargabe ginela, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen Kristo. **7** Nekez hilko litzateke norbait pertsona zuzen baten alde; agian bai, badaiteke norbait pertsona on baten alde hiltzeko prest egotea. **8** Baina Kristo, gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna. **9** Orain, Jainkoak Kristoren odolaz onartu gaituelarik, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez! **10** Zeren eta, etsai ginelarik, Jainkoak bere Semearen heriotzari esker berekin baketu bagintuen, behin baketuz gero, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko beraren

Brothers and sisters:

Christ, while we were still helpless, yet died at the appointed time for the ungodly. Indeed, only with difficulty does one die for a just person, though perhaps for a good person one might even find courage to die. But God proves his love for us in that while we were still sinners Christ died for us. How much more then, since we are now justified by his blood, will we be saved through him from the wrath. Indeed, if, while we were enemies, we were reconciled God through the death of his Son, how much more, once reconciled, will we be saved by his life. Not only that, but we also boast of God through our Lord Jesus

<p>biziaz! <b>11</b> Are gehiago, Jainkoaz harro gaude Jesu Kristo gure Jaunari esker, beronen bitartez Jainkoarekin baketzea iritsi baitugu dagoeneko.</p> <p>☐ <b>Jaunak esana!</b>  ☉ Eskerrak zuri Jauna!</p>	<p>Christ, through whom we have now received reconciliation.</p> <p>☐ <b>The Word of the Lord!</b>  ☉ Thanks be to God!</p>
---	---

### ALELUIA-ALLELUIA

<p><b>R. Aleluia, aleluia.</b>  Gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitezte eta sinetsi berri ona.  <b>R. Aleluia, aleluia.</b></p>	<p><b>R. Alleluia, alleluia.</b>  The kingdom of God is at hand. Repent and believe in the Gospel.  <b>R. Alleluia, alleluia.</b></p>
---	---

### EBANJELIOA-GOSPEL

<p>† <b>Jauna zuekin.</b>  ☉ Eta zure espirituarekin.  † <b>Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik</b>  ☉ Aintza Zuri, Jauna.  † <b>Jaunak esana.</b>  ☉ Eskerrak Zuri, Jauna</p>	<p>† The Lord be with you  ☉ <b>And with your spirit</b>  † A Reading from the Holy Gospel according to <b>N</b>  ☉ <b>Glory to you, O Lord.</b>  † The Gospel of the Lord.  ☉ <b>Praise to you, Lord Jesus Christ.</b></p>
--	---

### Ebanjelioa San Mateoren Liburutik/ Matt 9:36-10:8

<p><b>9:36</b> Jendetza ikustean, errukitu egin zitzairen Jesus, nekatuak eta lur jota baitzeuden, artzain gabeko ardiak bezala. <b>37</b> Orduan, bere ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi.  <b>38</b> Erregutu, bada, uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara». <b>10:1</b> Jesusek, bere hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. <b>2</b> Hona hemen hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon -Pedro deritzana- eta haren anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta haren anaia Joan; <b>3</b> Felipe eta Bartolome; Tomas eta Mateo, zergalaria; Santiago Alfeorena eta Tadeo; <b>4</b> Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.  <b>5</b> Hamabiok bidali zituen Jesusek, oharpen hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samaria herrialdean ere, <b>6</b> baizik eta joan Israel herriko</p>	<p>At the sight of the crowds, Jesus' heart was moved with pity for them because they were troubled and abandoned, like sheep without a shepherd. Then he said to his disciples, "The harvest is abundant but the laborers are few; so ask the master of the harvest to send out laborers for his harvest." Then he summoned his twelve disciples and gave them authority over unclean spirits to drive them out and to cure every disease and every illness. The names of the twelve apostles are these: first, Simon called Peter, and his brother Andrew; James, the son of Zebedee, and his brother John; Philip and Bartholomew, Thomas and Matthew the tax collector; James, the son of Alphaeus, and Thaddeus; Simon from Cana, and Judas Iscariot who betrayed him. Jesus sent out these twelve after instructing them thus, "Do not go into pagan territory or enter a Samaritan town. Go rather to the lost sheep</p>
---	---

<p>ardi galduengana. <b>7</b> Bidez zoaztela, hots egin Jainkoaren erregetza gainean dela. <b>8</b> Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legendunak, bota deabruak. Doan hartu duzue, eman doan.</p> <p>☐ <b>Jaunak esana!</b>  ☉ Eskerrak Zuri, Jauna!</p>	<p>of the house of Israel. As you go, make this proclamation: ‘The kingdom of heaven is at hand.’ Cure the sick, raise the dead, cleanse lepers, drive out demons. Without cost you have received; without cost you are to give.”</p> <p>☐ <b>The Word of the Lord!</b>  ☉ <b>Praise to you, Lord Jesus Christ.!</b></p>
--	--

**HOMILIA-HOMILY  
SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH**

<p><b>APOSTOLUEN AITORMENA</b>  ☉ <b>Sinisten dut, sinisten dut!</b>  † <b>Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztiduna,</b> zeru-lurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarrikik dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.  ☉ <b>Sinisten dut, sinisten dut!</b>  Sinisten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ <b>Amen.</b>  ☉ <b>Sinisten dut, sinisten dut!</b></p>	<p><b>APOSTLES' CREED</b>  † <b>I believe in God, the Father almighty,</b>  † ☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead.  I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.  ☉ <b>Amen.</b></p>
---	---

**JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL**

+ Brothers and Sisters: Inspired by the Holy Spirit let us place our needs before God our Father, rejoicing because Christ has triumphed over death and entered into glory.

1. For the Church: may the seed of faith planted in the heart of each believer grow into a bountiful manifestation of God’s reign in the world, as we live out our vocations as single, married, religious, deacons and priests. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
2. For a deeper love and appreciation of God’s Word: may the Word of God nourish, enrich and transform us as we strive to be true disciples of Jesus. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
3. For a deeper love and appreciation of God’s Word: may the Word of God nourish, enrich and transform us as we strive to be true disciples of Jesus. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

4. For a deeper love and appreciation of God’s Word: may the Word of God nourish, enrich and transform us as we strive to be true disciples of Jesus. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
5. For people suffering discrimination for the color of the skin, race, language, gender, or gender orientation. That they all may be treated as children of God who wants all to be saved. **We pray to the Lord. Lord Hear our Prayer.**

+ Lord God of justice and mercy, hear our prayers. Give our beloved dead the reward of their labors and grant us your consolation in our loss. We ask this through Christ our Lord.

**R/.** Amen.

## **EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY**

### **ESKAINZA ABESTIA/OFFERTORY SONG**

<p style="text-align: center;"><b>Jaungoiko Santua (148)</b></p> <p>Jaungoiko Santua, Jaungoiko indartsua, Jaungoiko hilezkorra:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. “Gaitz guztietatik gorde gaitzazu, Jauna.”</li> <li>2. Aintza beti Zuri, Zeru-lurretan, Jauna.</li> <li>3. Hartu opari hau, Aurpegi onez, Jauna.</li> </ol>	<p style="text-align: center;"><b>Holy God</b></p> <p>Holy God. Powerful God, Eternal God.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. From all evil, Guard us, Lord.</li> <li>2. Glory always to You In Heaven and earth, Lord.</li> <li>3. Accept this offering, With pleasing heart, Lord.</li> </ol>
--	--

<p>† <b>Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</b>          ☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† <b>Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</b>          ☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† <b>Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</b>          ☉ Jainkoa gorestekoa eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.          ☉ <b>Blessed be God for ever.</b></p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.          ☉ <b>Blessed be God for ever.</b></p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.          ☉ <b>May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</b></p>
---	---

### **OPARIGAIEN GAINEKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS**

<p>† Jainko Jauna, hemen eskaintzen dizugun dohain hauetan aurkitzen dugu biderako janaria eta bizi berri baten sakramentua; egizu, ez gaitezela aurkitu gure bizitzan gure gorputz-arimentzako laguntza horien gabe.</p> <p>Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† O God, who in the offerings presented here provide for the twofold needs of human nature, nourishing us with food and renewing us with your Sacrament, grant, we pray, that the sustenance they provide, may not fail us in body or in spirit.</p> <p>Through Christ our Lord.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	--

## EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† <b>Jauna zuekin</b></p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† <b>Gora bihotzak.</b></p> <p>☉ Jaunagan dauzkagu.</p> <p>† <b>Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</b></p> <p>☉ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>Maitasunez ospatzen dugu Haren heriotza, fede biziz aitortzen dugu Haren piztuera, eta itxaropen sendoz Haren aintzazko etorrera espero dugu.</p> <p>Horregatik, aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guziekin etengabe goratarre hau abesten dizugu:</p> <p>☉ <b>Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</b></p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ <b>And with your spirit.</b></p> <p>† Lift up your hearts.</p> <p>☉ <b>We lift them up to the Lord.</b></p> <p>† Let us give thanks to the Lord our God.</p> <p>☉ <b>It is right and just.</b></p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord.</p> <p>His Death we celebrate in love, his Resurrection we confess with living faith, and his Coming in glory we await with unwavering hope.</p> <p>And so, with all the Angels and Saints, we praise you, as without end we acclaim:</p> <p>☉ <b>Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</b></p>
--	---

## EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

<p>† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkiezu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz + eta odol guretzat egin daitezen.</p> <p>† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:</p> <p><b>HARTAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA-ETA, ZUENTZAT EMANGO DENA</b></p>	<p>† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body + and Blood of our Lord, Jesus Christ.</p> <p>† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:</p> <p><b>TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT, FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU</b></p>
---	--

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK  
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN KALIZA  
DA-TA, ITUN BERRI ETA BETIKOAREN  
ODOLA, ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT  
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.  
EGIZUE HAU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Ogi ardo hauek hartzean, zure heriotza dugu aitortzen, Zu, Jauna, etorri artean!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratuz, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabalduko dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

=====

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregan eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

=====

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean goretz zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK FROM  
IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF MY  
BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND  
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE  
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY  
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.  
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† **The mystery of faith.**

☉ We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

=====

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

=====

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, Joseph her blessed spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† **Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.**

† Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan  
 ◎ Amen.

◎ Amen.

### JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:  
 †◎ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.  
 Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.  
 †Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdian sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela  
 ◎Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.

† At the Savior’s command and formed by divine teaching, we dare to say:  
 †◎ **Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.**  
**Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.**  
 † Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.  
 ◎ **For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.**

### PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

† Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiozu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.  
 ◎ Amen.  
 † Jaunaren bakea beti zuekin.  
 ◎Eta zure espirituarekin.  
 † Emaiozue bakea elkarri.  
 ◎ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.  
 Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.  
 Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.

† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.  
 ◎ Amen.  
 † The peace of the Lord be with you always.  
 ◎ **And with your spirit.**  
 † Let us offer each other the sign of peace.  
 ◎ **Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.**  
**Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.**  
**Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.**  
 † **Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.**

<p>† <b>Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</b></p> <p>☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>☉ <b>Amen.</b></p>	<p>☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</p> <p>† The body of Christ.</p> <p>☉ <b>Amen.</b></p>
--	---

## **JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION HYMN**

<p><b>Ogi zerutik etorria</b></p> <p>Ogi zerutik etorria, zu zera gure poz guztia. (bis)</p> <p>Bildots santua hara hemen, munduko gaitzak kentzearren. Sagrarioan, nun dagoen, lurra zeruaz bat egiten. Lurra zeruaz bat egiten.</p>	<p><b>Bread From Heaven.</b></p> <p>Bread which has come down from Heaven You are our only Joy (bis).</p> <p>Look at the holy Lamb here among us To erase all the pains of the world: There you are hidden in the sagrary Uniting the earth with heaven, Uniting earth with heaven.</p>
---	---

## **JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION**

<p>+ Jaun hartze honek, Jauna, fededunak Zurekin bat direla adierazten dute; arren eskatzen dizugu, zure elizan ere denok bat egitea lortu dezagula. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p><b>R/. Amen.</b></p>	<p>+ As this reception of your Holy Communion, O Lord, foreshadows the union of the faithful in you, so may it bring about unity in your Church. Through Christ our Lord.</p> <p><b>R/. Amen.</b></p>
---	---

## **BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING**

<p>† <b>Jauna zuekin.</b></p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† <b>Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak.</b></p> <p>☉ Amen.</p> <p>† <b>Zoazte Jaunaren bakean. Aleluia, Aleluia</b></p> <p>☉ Eskerrak Jainkoari. Aleluia, Aleluia.</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ <b>And with your spirit.</b></p> <p>† May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit.</p> <p>☉ <b>Amen.</b></p> <p>† Go forth, the Mass is ended. Alleluia, Alleluia.</p> <p>☉ <b>Thanks be to God. Alleluia, Alleluia.</b></p>
---	---

## **AZKEN ABESTIA-FINAL SONG**

<p><b>Agur Jesusen Ama</b></p>	<p><b>Hail, Mother of Jesus</b> Hail, Mother of Jesus,</p>
--------------------------------	--

Agur, Jesusen ama,  
Birjina maitea,  
agur, itxasoko izar  
dizdiratzailea.  
Agur, zeruko eguzki  
pozkidaz betea.  
Agur, bekatarien,  
kaia ta estalpea.  
Agur, bekatarien,  
kaia ta estalpea.

Baina Zugandik alde,  
bihotzak ezin du,  
Zuregana dijoa,  
Zugan bizi nahi du.  
Birjin berdingabea,  
onetsi nazazu:  
Agur, Ama nerea,  
Agur, agur, agur.  
Agur, Ama nerea,  
Agur, agur, agur.

Dear Virgin,  
Hail, twinkling  
Star of the Sea.  
Hail Joyful  
Sun of Heaven.  
Hail, haven, and porch  
of sinners.  
Hail, haven, and porch  
of sinners.

From Thee far away,  
our heart cannot stand,  
It (our heart) goes toward Thee.  
We want to live with You.  
Incomparable Virgin,  
Bless me.  
Hail, my mother,  
Hail, Hail, Hail.  
Hail, my mother,  
Hail, Hail, Hail.

## ***Goza besta!*** ***Enjoy the Picnic!***



**Egun on bat opa dizuet**  
**👉 wish you a wonderful day**



## URTEKO Hamaikagarren IGANDEA A

### Lehen irakurgaia

#### Jalgitza 19:2-6a

<sup>2</sup> Refidimetik abiaturik, Sinai basamorturat heldu ziren, eta han ezarri zuten kanpalekua, mendiaren aitzinean. <sup>3</sup> Moises mendirat igan zen Jainkoarengan. Jaunak menditik dei egin eta erran zion: «Mintza zakizkiote Jakoberen ondokoeri, israeldarrereri, eta errozute: <sup>4</sup> Ikusi duzue zer egin diotetan egiptotarrereri, eta nola, arranoak bere umeak hegaletan bezala hartuz, nereganat ekarri zaituztetan. <sup>5</sup> Beraz, nik errana entzuten baduzue eta nere elkargoa begiratzen, zuek ukanen zaituztet herri guzien artean neure jabego berezia, nerea baita lur osoa; <sup>6</sup> apez-erresuma ukanen zaituztet, neri sagaratu herri.

**Jaunak errana!**  
**Eskerraz zuri Jauna!**

#### Salmoa 100 (99): 1-2, 3, 4

**Leloa:** Gu gera haren herri eta haren larreko artalde.

Egin irrintzi Jaunari, lur guziak!  
Zerbitza pozik Jauna,  
sar oihera alaietan harengan.

Aitor Jauna Jainko dela.  
Harek eginak eta harenak gira,  
haren herri eta haren larreko artalde.

Bai, ona da Jauna,  
haren maitasuna betierekoa,  
haren leialtasuna mendez mendetako.

### Bigarren irakurgaia

#### Jondoni Paulok Erromatarrereri 5:6-11

Haurrideak, <sup>6</sup> Ezen oraino indarririk gabe ginaudelarik, bere tenorean Kristo hil da, gaixtoentzat. <sup>7</sup> Nekez onar lezake norbaitek presuna zuzen batentzat hiltzea; beharbada, baliteke norbait presuna on batentzat hiltzeko prest izaitea. <sup>8</sup> Bainan Kristo guretzat hil da, gu oraino bekatari ginelarik: Jainkoak hola erakusten du maite gaituela. <sup>9</sup> Orain, Jainkoak Kristoren odolari esker ontzat hartu gaituenaz geroz, nolaz ez gaitu salbatuko zigorretik Kristoren bidez! <sup>10</sup> Jainkoaren etsai ginen, bainan bere semearen heriotzeari esker berekin baketu gaitu.

Behin baketuz geroz, nolaz ez gaitu salbatuko bere semearen biziaz! **11** Oraino gehiago: Jainkoaz harro gaude Jesu Kristo gure Jaunari esker, hunen bitartez Jainkoarekin baketuak baigira orai.

**Jaunak errana!**  
**Eskerraz zuri Jauna!**

## **Ebanjelioa**

### **Alleluia, alleluia**

«Betea da epea, eta hurbildua Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitetze eta sinets berriona».

### **Jesu Kristoren Ebanjelioaren Jondoni Matiuren Liburutik 9:36-10.8**

**9,36** Ikusten zituen jendaldez urrikaldu zen Jesus, nekatuak eta ezinduak baitziren, artzainik gabeko ardiak bezala. **37** Orduan bere dizipulueri erran zioten: «Uzta nasaia da, bainan langile guti. **38** Otoitz zazue, bada, uztaren jabea langileak igor ditzan bere uztarat». **10,1** Jesusek, bere hamabi dizipulueri dei eginik, ahala eman zioten izpiritu gaixtoen haizatzeko eta gaitz ala eritasun guzien sendatzeko. **2** Huna hamabi apostoluen izenak: lehena Simon –Petri deitua–eta Andre haren anaia; Jakobe Zebedeoren semea, eta Joani haren anaia; **3** Filipe eta Bartolome; Tomas, eta Matiu, zergalaria; Jakobe Alfeoren semea, eta Tadeo; **4** Simon zelota eta Judas Iskariot, Jesus saldu zuena. **5** Hamabi horiek igorri zituen Jesusek, manu hauek emanez:–Ez joan paganoen lurraldeetarat, ez sar Samariarren hirietan. **6** Zoazte, izaitekotz, Israel herriko ardi galduenganat. **7** Bidean zoaztela, oihuka zazue Jainkoaren erregetza hurbildua dela. **8** Senda eriak, hilak pitz, garbi legendunak, haiza debruak. Urririk ukan duzue, urrik emazue.

**Jaunak errana!**  
**Eskerraz zuri Jauna!**